

Hilebete honetan jokatuko da II. Mugarri Desafioa

Urtailaren 5a zan II. Mugarri Desafiorako eguna baina atzeratu egin zan. Oin, zezeilaren 23an jokatuko da Arratiako anaia pelotarien arteko txapelketea. Dimako plazako frontoi txikian jokatuko dira partiduak.

III. Mugarri Desafioa, anaien arteko desafio amaitu eta astebetera hasiko da, martian. Txapelketea zezeilaren 1ean aurkeztu eben Indusiko txokoan eta antolakuntzeari jagokonez, beste salto bat izango da Mugarri Desafioarentzako. **10. orrialdea**



Korrikaren koordinatzaile nagusiari alkarrizketea

Ane Elordik, Korrikaren koordinatzaile nagusiak, Arratiako Kubulu Euskaltegian egiten dau behar. Koordinatzaile nagusiaren beharra eta 23. Korrikaren zehaztasunak azaldu deusaz BEGITURI. Korrikaren antolakuntzan aspalditik dabil Elordi: eskualde mailan, furgonetan, prensa taldean... ondo ezetuten dau Korrika barrutik. Jentetzeak parte hartzean dauan jaia izateaz gainera, euskerearen aldarrikapenaren garrantzia azpimarratu gura izan dau. Jentetarengan be "euskerearen alde aldarrikapenean ibilteko" gogoia dagoala dino eta hori ekarri gura izan dabela lehengo lerroa edizino honetan. **8. orrialdea**



San Balendin 18an ospatuko da Zeanurin

Artea neurtuz eta Nestor Basterretxea gogoratuz ospatuko dabe San Balendin jaia zeanuriztarrek. Artea neurtzearen tradizioak 65 urte beteko ditu aurten.

Mezea 11:30ean izango da eta ostean prozesinoan San Balendinen irudia Piedadera eroango dabe. 12:15ean, Piedadeko artea neurtuko dabe. **9. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Turismoan euskerea sustatzeko proiektua aurkeztu dau Gorbeialdek

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak, Errotik izeneko euskerea sustatzeko proiektua abiatu dau. Arratia eta Hego Nerbioiko landa eremuetan, turismoan euskerearen erabilera sustatzeko helburua dauka eta dobako zerbitzua emongo deutse ekoizle eta establezimentuei horretarako. **7. orrialdea**

ARTEA

Utopien Herri Birako kafe solasaldia lurraren aktibistakaz

Utopien Herri Biran parte hartzean daben defendatzaile eta komunikatzaileek kafe solasaldia egingo dabe Arteako Herriko Bentan, zezeilaren 18an, 17:00etan. Bertan, lurra eta lurraldearen zaintza kolektiboaren gainean jardungo dabe hurreratutako jenteezagaz. **5. orrialdea**

ARRATIA/UBIDE

AUMk 2024ko aurrekontuak onartu ditu

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) 6.719.107,78 euroko aurrekontua kudeatuko dau aurten. Aurrekontua urtailaren 31n onartu zan, EAJ-PNV taldearen aldeko botoakaz, EH Bilduren kontrakoakaz eta Ubideko Herri Kandidaturearen abstentzioagaz. Partida garrantzitsuenak gizarte zerbitzuetara bideratutakoak dira: etxe eteko laguntzea, bazterketa egoeran ondoan egotekoa edo gizarte larrialdietarako laguntzak, eta jasangarritasuna eta hondakinen kudeaketea, besteak beste.

EH Bilduk adinekoentzako eguneko zentroak ipinteko AUMeko 2024ko aurrekontuetan diru partidarik ez egotea salatu dau. **7. orrialdea**



ESTUDIO DUENDE

URTE

DISEINU GRAFIKOKO ESTUDIOA AREATZAN

Literatura txokoa

AZKEN ETXEA

Zahartzaroaren inguruko liburua ei zala-ta irakurri gura izan neban eta halantxe izan da; gainera idazlea bera be edadeko andrea dan neurrian sinisgarriago be egiten da kontetan dauana. Personaiak euren bizitzako azken etapan dagoz, baina oso egoera desbardinetan agertzen jakuz: ez dago zahartzaroa, zahartzaroak dagoz.

Baina, jakina, liburu on guztien antzera ez da hori lantzean dauan gai bakarra, hor dagoz beste honeek be: bizitzako aukeren garrantzia, identitatea, aurreko bizitzagaz guztiz apurtu ete daiteken, utopien gainbeherea...

Soseguak be bere lekua dauka liburuan, horren bila dabil-ta protagonista denpora guztian. Holan bizi gura dau atzen etapa

hori, soseguan. Muzin egiten deuto zahartzaro aktiboari eta kontenplazioan emon gura ditu orduak. Horretarako gura dau etxea eta batez be lorategia. Lorategiari etxeari beste garrantzia emoten deuto; ez dau alperrik ipinten Arantxa Urretabizkaia hasikerako orriko aiuetan *Jardinsotia* liburutik hartutakoa: "Utopiatik hurbilago zaude lorategi batean munduko beste edozein lekutan baino".

Misterio kutsua dario liburuari, ez oingo nobela baltzen estilokoa, gehiago Hitchcock-enekoa.

Erritmo lasaia baina giro misteriotsua hasikeratik; personaiak be izen barik aurkezten deuskuz; giza-harremanei buruz dihardu etenbarik baina ez dira ohiko ha-

rremanak.

Zelango aukerak egin ebezan personaiak eta ze eragin izan eban horrek euren bizitzan erakusten deusku eta bide horri jarraituz nor diran eta zelango bizitzea izan daben; eregi egiten ditu apurka-apurka. Horretan datza misterioak: personaiak eta euren bizitzak eregitean.

Izan daiteke, agian, liburu bera metafora bat: beti, baita zahartzaroarena be, bagabiz gure identitatea eregiten, beti gabiz planak egiten eta aldi berean sosegura bila, beti paradisuari begira eta etxe artean, bakarrik eta besteakaz harremanetan... Bizitzak kontraesana eta mobimentua ditu bere.

Maite Artabe Urkiri



Arantxa Urretabizkaia

Azken etxea

Pamiela, 2022

160 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 12tik 18ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 19tik 25era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 26tik martiaren 3ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Saibilburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarra 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 94 645 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 94 645 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 / *mankomunitatea.arratia@bizkaia.org*

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean ordu 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era ordu.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra ordu.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 Linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandioa: 06:45etik 20:45era ordu. Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordirik behin.

Ubideitik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordirik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordirik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 Linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 Linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkarte. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzino:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazino:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tirada:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidea.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLI). Kale berbakunea sustatu guran

LUGINAK ETA ABELTZAINAK

-Hi! Nekazariak kezaz **jabixek!**
-Heu be kezaz egon behar **hintike** ba!
-Zer ba?
-Janari gehiena kanpotik ekarten **jauriek**, batek **jakik** zer botaten deutesien.
-**Eñauk** informauta...
-Engainauta **gaxak!** Elikadura soberaniarik **etxekuk** eta... bihar edo etzi krisiren bat **bajak** Europan, gosea **egongok** hemen. Euskal Herria lehenengo eta bigarren sektorera itzultzen ez **badok**, gorriak ikusi behar **juzek** hemen.
-Egia **dok!** Azkenengo urteetan turismoa baino **etxuk** bultzatu Euskal Herrian.

ERETXIA

Gehiago itxaron barik, nekazaritzako politika publikoetan aldaketa behar dogu

NPBren etorkizuneko planek elikadura osasungarria ziurtatuko deuskuen erronka handiak konpondu behar ditue: ingurumena, gure bizimodua, elikadura, aire garbia arnastea, edateko ura hornitzeko beharra eta lur emonkorak nekazaritzan erabilteko gordetzea arriskuan ipini barik.

Beharrezkoa dira haziak, fruta-arbolak eta lurralde bakotxerako abere mota egokiak berreskuratzea eta konserbetzea. Arratia ez da munduaren gainerakoan bizi danaren desbardina. Hemen be, nekazaritza-politika negargarriak eragindako fenomenoak gertatzen dira: esku gitxitan lurra pila-tzea, nekazaritza-ustiategiak ixtea eta produktu horreen eta euren lanbide tradizionalen eraldaketa desagertzea. Nekazaritzako lurra erabilteko aukerarik eza jasaten gabiz, instalazio barriak eta biztanleria gaztetzea eragozten ditu-eta, sektorean ez dago erleborik, ez jakolako lehentasunik emoten elikadurareari, ez orainari, ez etorkizunari.

Instituzioek Plan estrategikoak egiten ditue, ingurunean ekointzitateko %5 baino gitxiago jaten segidu daigun eta produktu kilometrikoak inportetan segiduteko. Izan be, nekazaritza-industriarako lehengaiak merkeak dira, personak eta natura ustiatzen diran lurraldeetatik datozelako. Horren ingurumen kostua ezin dogu onartu.

Elikagaien segurtasuna izateko, eta menpekoak ez izateko, baserriak behar doguz: dagozanak zaindu eta elikagai osasuntsuen eta hurrekoen produktore kopurua nabarmen handitzeko baldintzak erraztuz.



IGITIE

Arratiako Baserriar
Agroekologikoen Elkarte

dituela, merkadua hondoratzen dabela, batez be tokian tokioa, prezioak jaisten dituela mugazergarik bako produktuen kontura eta elikagaien kalidadea jaisten dabela.

• Sinisteari itxi deusagu konponbideak goitik etorri behar dauala, urrunetik. Gugandik hasi gara, daukagun ekoizpen eredu berrikusita, jasangarriagoak eta agroekologikoagoak izateko bidean. Era berean, toki mailan konplizidadeak bilatzeko urratsak egiten gabiz, gure artean, interes berberak dituen personak, elikadura subiranotasunagaz sensibilizautako erakunde publikoak, hurreko konponbide posibleak bilatzen.

• Horregaitik, bat egiten dogu Bizkaian nekazal sindikatuek planteetan daben burrukeagaz: ezinegon horren oinarria da baserri gehienetan ez daukiela diru sarrera duinik eta etorkizunerako aurreikuspen baikorrik, neurri handi baten EBk hamarkadetan zehar aplikautako politika neoliberalen ondorioz.

• EHNE Bizkaiaeren eta ENBA Bizkaiaeren eretxian, nekazaritza sektoreak erantzun zehatzak eta errealak behar ditu bere arazoentzat, eta eskaerak hiru ardatzetan zehazten ditue:

1-. Merkataritza askeko akordioen negoziazioak berehala etetea. MERCOSUR lango akordioen negoziazioak gelditu arazotea eta Zeelanda Berriagaz akordioa ez berrestea eskatzen dabe, ardi okelea (bildotsak) eta esnea Europako merkaduetan sartzeak dakarren mehatxuagaitik.

2-. Baserriarrentzako prezioek ekoizpen kostuak bermatu behar ditue.

3-. Gehiegizko burokraziak kostu onartezinak eragiten deutesz baserriarrei, eta ez dabe ixten helburuak beteten.

Seguru gagoz akats bat dala pentsetea tamainuz hazi behar dogula errentagarriak izateko, beharrezkoa ikusten doguna nekazaritzako beste politika bat da, eta ez dogu ahaztu behar eraldaketa sozial handiak nekazaritza erreforma bategaz hasten dirala.

Ze neurri gehiago hartu beharko geunkez? Hor dagoz nekazarion aldarrikapen nagusiak:

• Hedabideetara jauzi egin dabe nekazariak eta elikagaien ekoizleek Europan egiten diran nekazaritza politikakaz daukien desadostasunek. Frantziako estaduan, nekazaritza ekoizpena oso antolatuta dago, eta petrolioagazko menpekotasun handia dauka, traktore handien bidez, eta mobilizazioak eginaz, traktoreak lurraldea okupau dabe... baita Europako Parlamentura heldu be. Estatu espainiarrean burrukeak jarraituko deutso, giro oso nahasian, eta gure kezka handiaren eta erabateko gaitzespenaren aurrean, nekazari mobilizau batzuek plagiziden eta produktu toxikoen erabilera aldarrikatzen dabe.

• Baina nekazarien artean danok ez dogu diagnostiko bera egiten, guk, baserriar txikiak ez doguz urtenbide berberak planteetan. Danok salatzen dogu merkataritza libreko itunak egiten



LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Bestearen azalean jarriz

Irudi bortitzak publiketearen etikeari buruzko eztabaideak galdera asko plazaratzen ditu. Zilegi da besteen sufrimentua erakustea? Erretratatu objetualizatzen gabiz? Biolentziaren errepresentazioaren errepikapenak matxinatu arazo ala anestesiau egiten gaitu?

Guk, mendebaldeko, pelikula txar bat balitz, irudietan ikusten doguz Hamasen hilketak eta Israelek egindako eraso basakeriak. Errubako milaka heriotz eta mendebaldeko gobernu gehientsuak *standby*-n. Gazan gertatzen dana genozidioa ez bada, Jaungoikoa datorrela eta ikusi dagiala.

Lur hareetan, minak eragindako aspalditik datorren egunero amorrua eta gorrotoa dago eta historian gertatzen dan legez, indarra daukanak aurkaria zapuztu gura dau.

Israelen iragana presentegia dagoala eta memoria kartzelan bihurtu daitekela dino David

Grossman, Jerusalemen jaio-tako idazle ezagunak. David Grossman, bertako gobernuen kritikoa da.

Grossmanen lehentasuna norbereren errazoiak alde batean itxi eta bestea ulertzea da. Beronek dino: "inguru guztia arabiarra da baina zoritxarez Israelen arabiera da gitxien ikasten dan hizkuntzea. Israeldarrek arabieraz berba egingo baleukie, guk hebraieraz berba egiten dogun moduan, gauzak bestelakoak izango litzatekez". "Idazten dodanean, nahiz eta protagonista palestianarra, nazia edo judua izan, bere buruan sartu gura dot eta bera nirean sartu daiten" azalduten dau.

"Arabiarra ikasi nebanean, hebraiera nire hizkuntzearen eraikuntzak be ulertu nebazan". Bere liburu gehienetan, palestinarren ikuspuntua hartzean saiatzen da eta gaurko triskantza honek Israelen herri gisa degradazioa eta itsutasuna dakar. "Israeldarrak gerrarako programautu dagoz".

2006. urtean, Libano eta Israelen arteko gerran su etena eskatu eban une berean, Israelgo ejerzitoan soldadu egoan Uri izeneko David Grossmanen hogeituroko semea hil eben. Beraz, ondortxo daki zer dan norbereren eta besteen sufrimentua. Grossman, israeldarren eta palestinarren aldeko alkarizketearen defentsan ageri da beti. Eta berak esana da "ez dago justifikaziorik alde biei sufrimentu eta odol isurketa gehiago gehitzeako". Baina hainbeste sarraski eta heriotzen aurrean, zer gehiago gertatu daiteke?

ZERTZEAN



IRANTZU LEKUE



BEGI TXINDORRA

Osasun agintariak kezkatuta ei dagoz Euskal Autonomia Erkidegoan psikofarmakoaren kontsumoak gora egin daualako asko.

Mundu justu baten eta aske biziko bagina, jentearen buru osasuna askoz hobea litzateke eta depresino eta ansiedadek gainbehera itzela egingo leukie.

Baina bizi garan munduan bizi gara eta medikuek, salbuespenak salbuespen, buru osasunerako botikak agintzen dabez ia beti, osasun agintarien kezka sortzean dabezan psikofarmakoak, hain zuzen be.

Bizi garan munduan bizi gara, bai, baina bizi garan lekuan be bai. Eta Arratian, buru osasunerako onak diran hainbat erreminta daukaguz; androk, Gu Be Bai Runners taldea esate baterako.

Andrak alkarregaz galapan egiteko sortu eban Iraia Garcia atleteak GBBR taldea 2015ean. Harrezkerotik, eta 9 urte dira, alkartzen dira hainbat andra galapan lagun arteko giroan egiteko, modu ez lehiakorrean, bakotxa bere mailan eta bere neurrian, aire librean eta natura-reagaz kontaktuan. Onurak lehenengo egunetik igartzen dira, alboondorio kaltegarri barik. Eta gogoa eta zapatilak baino ez dira behar.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
ikolagata Zerbaita 900
R.P.S. 31/06

LEMOA

Goiener kooperatibeak faktura elektrikoa ulertu eta hobetuteko tailerra egingo dau Lemoan

Erredakzioa

Berbalagun egitasmoak antolatuta, tailerra zezeilaren 22an, 18:00etatik 19:30era izango da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Parte hartzeako izena www.labur.eus/berbatopa helbidean emon behar dabe interesa daukienek eta tailerrera argindar faktura bat erotea komenidu da.

Tailerrak energia eraginkortasunaren eta aurrezpenaren kontzeptuak jakin arazoteko helburua dauka, baita personak trebatzea argindarraren faturearen irakurketan eta optimizazioan be. Bertaratuen argindar fakturak baliatuz, norberaren beharretara egokituak ez dagozan kontratuak detektauko dabez.

Goiener

Goiener irabazi asmo bako energia barriztagarrien sorkuntza eta konsumo kooperatiba bat da,

17.736 bazkide eta ia 21.500 kontratu dituana. Goiener-ek subiranotasun energetikoa berreskuratu gura dau egun sektore elektrikoan liberalizaut dagozan esparruetan sartuz: merkaturatzea (energia erosketea) eta sorkuntzea. Energia komunitadeak sortzeako bi delagun lanak be egiten dauz.



ARTEA

Euskal oil enpreseak bere ordezkari bat lanetik bota dauala salatu dau ELA sindikatuak eta mobilizazioak egin ditu

Arteako Bidosola Industrialgunean dagoan Euskal Oil enpresearen aurrean konzentrazioak egin eta manifestazioa egin eben zezeilaren 7an sindikatukoek, lanetik botatako ELAko ordezkaria barrero hartzeako eskatuten.

Erredakzioa

Leonor Garcia ELAkoaren arabera, hauteskunde sindikaletarako hautagaiak jakin eta hurrengo egunera bota eben ordezkaria. "Urtailaren 12an bialdu genduan Eusko Jaurlaritzara aurreabisua, zezeilaren 12an hautaketa prozesua hasteko. Beste sindikatu batzuen bitartez jakinarazo jakon enpreseari hauteskundeak urtailaren 18an eta 19an izango zirala eta enpreseak ELAko hautagaia bota eban lanetik. Jakin eta segiduan, hurrengo egunean" azaldu deutso BEGITURI. Bere esanetan, enpreseak langileari "jarkera desegokiak" leporatu eutsazan.

"Gure eretxian errepresino sindikala izan da". Beharginentzako diziplinazko mezua be izan dala salatu eban Garciak.

Hauteskunde sindikaletarako euren ordezkaria, kaleratutako

behargina izatea gura dau ELAk, eta sindikatuako zerbitzu juridikoei be emon jakie horren barri.

Euskal Oil enpreseak erregaiak bananduten dauz. Hamar behargin ditu Artean.



Arteako konzentrazioa.

ARTEA

Lurraren aktibistakaz solasaldia egongo da Arteako Herriko Bentan

Zezeilaren 18an, 17:00etan, Utopien Herri Biran parte hartzean daben defendatzaile eta komunikatzaileak, *Sareak ehunduz. Abya Yalako eta Euskal Herriko emakumeen** eta kolektiboaren arteko elkarrizketak lurraren, lurraldearen eta zaintza kolektiboaren defentsarako izenpean, lurraldearen zaintza kolektiboaren gaineko kafe solasaldian egongo dira Arteako Herriko Bentan. Aurreko bi egunetan, hilak 16 eta 17, *Komunikazioa eta Giza Eskubideak. Gure burua babesteko topaketa* egongo da Arteako Basoa defendatzaileen etxean, hedabideei zuzenduta, batez be.

Erredakzioa

Jarduera honeek biak Utopien Herri Biraren parte dira. Bira, zezeilaren 15etik 26ra izango da. Kafe solasaldiek, topaketak, tailerrek, unibersidade mintegiek eta erakunde eta instituzinoakaz batzarrek osotuten dabe.

Partaideak

Guatemala, Mexiko, Honduras, Kolonbia eta Nikaraguako defendatzaile eta komunikatzaileek hartuko dabe parte Utopien Herri Biran. Guatemalako ordezkariak dira

Rosa Ixjab Calel, pokomtxi herriko defendatzaile gaztea, Union Verapacense de Organizaciones Campesinas (UVOC) arbasoen lurraldeak eta lurrerako sarbidea defendatzeko erakunde indigena eta baseritarreko kidea, eta Norma Sacir, kazetaria, gizarte komunikatzailea eta giza eskubideen defendatzailea, chorti herrikoa eta Consejo Indígena maya Chorti de Olopa erakundeko kidea.

Mexikotik datoz Samantha Cesar Vargas, giza eta ingurumen eskubideen defendatzailea, gizarte komunikatzailea, Amiltzinko irati

komunitarioko lokutorea eta programatzailea, Indigenen Kongresu Nazionaleko ordezkaria eta Frente de Pueblos en Defensa de la Tierra y el Agua - Morelos, Puebla y Tlaxcala (FPDTA-MPT) erakundeko kidea eta Teresa Castellanos, lurraldearen eta uraren defendatzailea, nahua indigena, Huexca komunitadeko. Huexcako Alegría y Resistencia irati komunitarioaren proiektuaren buru eta FPDTA-MPT erakundeko kidea da.

Lilian Borja eta Leslie Benegas dira Honduraseko ordezkariak. Borja, Yoro departamentuko El

Progreso uriko departamentu zuzendaria da, eta Defendatzaileen Sare Nazionaleko eta Central Nacional de Trabajadoras/es del Campo (CNTC) erakundeko kidea. Benegas, Radio Progresoko gizarte komunikatzailea eta irati eta web kazetaria da, ondasun naturalen, giza eskubideen, politikaren, generoaren eta ekonomia gaien arloan.

Kolonbiatik Maria Carvajal baseritarra eta lurraren eta lurraldearen defendatzailea dator, Asociación campesina del Catacumbo

(ASCAMCAT) alkarteko liderra da. Nekazaritza Erreserbako Zonaldeak (Zonas de Reserva Campesina, ZRC) sustatzen ditue, gatazkak zeharkatutako zonaldeetarako proposamen moduan.

Nikaragutik parte hartuko dau Jilma Ruizek. Ruiz andra baserritarra da, feministea, lesbiana, psikologoa eta giza eskubideen defendatzailea; batez be andren eta LGBTIQ+ personen eskubideak defendituten dauz. Red de Mujeres Pinoleras (REMUPI) erakundeko kidea be bada.



LEMOA

Ihes-gela ibiltaria Lemoan

Euskaraz barra-barra kanpainearen ihes-gela ibiltaria Lemoan izango da hilaren 16ko 17:00etatik, 18ko 21:00etara, Arlonagusia plazan.

Erredakzioa

Ihes-gelan sartzeako gitxieneko adina 16 urtekoa da. Taldeka hartzean da parte jokoan, eta gehienez 5 persona sartu daitezke batera. Parte hartzeako ordua hartu behar da alde aurretik <https://euskarazbarrabarra.eus/es/ihes-gela/#erreserba-eginv> estekan.

Ihes-gelak 17. logela dauka izena. "Thotel lujuzko hotel ka-teak ehun urte daroaz euskal herritarrik ezagunenen loa zaintzen mundu osoan zehar. Urteurren biribil honetan, ibiltari bilakatu da, herritar guztiei bere izaretan lo



egiteko pribilegioa eskaintzeko" dinoe antolatzaileek.

Ihes-gela ibiltari hau Euskal Herria osotik dabil, Euskaraz barra-barra egitasmoa sustatzeko eta gizartearen aktibazioari bultzada emoteko.

Euskaraz barra-barra

Herritarrek euskeraz berba egin leikien guneak identifiketan dituan ikurra da Euskaraz barra-barra. Konsumitzailea erdigunean jarri eta estres linguistikoa murrizteko helburuagaz, Euskal Herri osora zabalduko dan egitasmoa.

Euskaraz barra-barraren koordinazio mahaia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaek, Nafarroako Euskarabideak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak osotuten dabe. Koordinazio mahaiaz gainera, Euskal Herriko erakunde publiko zein pribadu ugari, tokian tokiko euskera batzordeek eta hamaika boluntario eta entidadek be osotuen dabe egitasmoaren antolakuntzea.

IGORRE

Bizi Igorren 2030 proiektuaren zaintza eta ingurumenaren gaineko saioa hilaren 21ean

Erredakzioa

Saioa, zezeilaren 21ean izango da, 17:30etik 19:15era, Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan.

Bizi Igorren 2030 proiektuko idazkaritza teknikotik adierazo dabez, Igorre 2030 proiektuaren helburu nagusia, "Igorre bizigarri, jasangarri eta parte-hartzaile bat sortzea da, herritar eta eragi-

leakaz alkarlanean". Zemendia eta abendua artean egindako ikerketatik eta oin arte Igorren eginda dagozan ikerketetatik jasotako informazioa oinarri hartuta "misino" biren zirriborroak garatu dabez eta horreen barri emon eta ekarpenak jasoko ditue saioan. "Ibilbide honetan gai moltso bi, lehenengoa zaintzarena eta bigarrena ingurumenarena, kontuan

izanda, hamar urte begirako misino bi sortu eta hareetara helzteko ekintza barriztaileak garatu gura dira".

Umeentzako saio paralelo bat prestatuko da, eurek be modu aktiboan parte hartu dagien.



ARRATIA

Euskal preso eta igeslarien alde dirua batzeako etxera eroateko bazkaria

Erredakzioa

Zezeilaren 24an batu eta etxera eroan daiteke euskal preso eta igeslarien alde dirua batzeako alkartasun bazkaria. Menua babek, sakramentuek eta postreak osotuten dabe eta 15 euroko prezioa dauka.

Bazkaria, hilaren 24an, zapatuan 14:00etatik 14:30era, Areatzakoko udaletxe arkupean, Areatzakoko udaletxe aurrean, Dimako frontoi txikian, Igorreko Axular

Herriko Tabernan, Lemoako Gaztetxean eta Zeanuriko udaletxe aurrean jaso daiteke.

Eskaerea barriz, zezeilaren 21a baino lehen egin behar da hurrengo telefonoetan: Areatzakoko 655 723 506 telefonora deituta edo mezua baiduta; Arteakoek, 600 389 055 telefonora; Dimakoek, 656 778 166 telefonora; Igorrekoek, 699 919 085 telefonora; Lemoakoek, 696 802 763 telefonora eta Zeanurikoek, 620 253 725 telefonora.



ZEBERIO

Liztor asiarra harrapetako tranpak bananduko ditue Zeberion hilaren 24an

Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapen Alkar-teak martxan ipinitako liztor asiarra (*vespa velutina*) espezie inbaditzailearen gaineko atzen berbaldia izango da Zeberion egingo dana hilaren 24an, zapatua, 12:30ean Hogarrean. Urtailean, Areatzan, Artean, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin eta zezeilean Bedian egon ziran teknikariak kanpainearen garrantzia azaltzen, aurreko urteko balorazioaren barri emoten

eta erreginak harrapetako tranpak bananduten, besteak beste. Zeberio berbaldian be osogaiak zeintzuk diran azalduko dabez eta zelan egin tranpa horreen jarraipena be.

Euskal Herrira oin dala hamarkada bat baino gehiago heldu zan Asiako liztorrak ez dauka etsai naturalik eta bere dietan erleak dagoz. Erleen eskasiak, erlezainak kaltetzaez gainera, desoreka ekologikoa dakar. Hori dala-ta, urtero, liztorrak harrapetako kanpainak egiten dira.

DIMA

Dimak Ingurumen teknikaria kontratau dau

Dimak, ingurumen kudeaketea, eraginkortasun energetikoa eta jasangarritasunaren konpromisoa sendotuteko,

Europako Next Generation programearen dirulaguntzeagaz, Ingurumen Teknikaria hartu dau, printzipioz, urtebetez.

Ander Salvador Moya da Ingurumen Teknikaria.

Erredakzioa

Teknikariaren eginkizun nagusia, "herritarrekaz hurretik lan egitea izango da, ingurumen eta energia gaiak landu eta ebazteko" jakinarazo dabe Udaletik. Teknikariaren beraren berbetan, "Dimara etorri naz, batez be, herriaren transizino energetikoa aurrera erroten lagunduteko, baita herritarrek dituen ingurumenari buruzko iruzkinak, kexak, ideak eta zalantzak jasoteko be. Herriak klima aldaketaren prozesua bizkortzea ahalbidetzen daben ekintzak gititu gura ditu, eta bere ingurumen konzientzia azpimarratu, deskarbonizazioa sustatzeko era guztietako proiektu jasangarriak bultzatuz. Honeen artean, hurretik lan egingo dot herritar batzukaz, energia barriztagarrien komunitate bat sortzeako interesa azaldu dabezanakaz, hain zuzen be" azaldu deutso BEGITU.

Gaur egungo egoera klimatikoa dala-ta, ingurumena zaintzeak gero eta inportantzia handiagoa hartu dau eta Dimak ingurumen arazoak konponduteko lan egin gura dau. "Dima, ingurumenagaz hartu-emon estua daukan herria da; izan be, demografikoki txikia izan arren, Bizkaiko gainerako herriek baino askoz zabalera handiagoa

dauka eremu naturalez inguratuta. Horregaitik, herria osotuten dauan ondare naturala jagotea garrantzitsua dala pentsetan dogu, azken finean, gure etorkizuna dagoalako zalantzan. Oindino gehiago, Dimak, eremu babestuek eta interes handiko ondarea be badauka, garrantzi handikoak, ez bakarrik herriarentzat, baita Bizkaia osoarentzat be" dino.

Ingurumen teknikaria

Ander Salvador Bilbotik dator eta EHU graduautako biologoa da. Bartzelonan, biodiversidadearen kudeaketearen gaineko masterra eginda dauka. Next Generation deritxan Europako proiektuak eskaintako dirulaguntzakaz, Euskal Herriko zenbait udalerrik, tartean Dimak, teknikari postuak sortu ditue urtebeterako. Dirulaguntza horri esker eta Lanbideren bitartez kudeatutako hautaketa prozesuaren ondorioz, lanean dago Ingurumen teknikaria Diman.



ARRATIA/UBIDE

Arratiako Udalen Mankomunitateak 6,7 miloiko aurrekontua kudeatuko dau aurton

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) 6.719.107,78 euroko aurrekontua kudeatuko dau aurton, 2023koa baino %16,27 handiagoa.

Erredakzioa

Partida garrantzitsuenak gizarte zerbitzuetara bideratutakoak izango dira, etxez etxeko laguntzea, bazterketa egoeran ondoan egotea edo gizarte larrialdietarako laguntzak, eta jasangarritasuna eta hondakinen kudeaketa, besteak beste. Aurrekontua urtailaren 31n onartu zan, EAJ-PNV taldearen aldeko botoakaz, EH Bilduren kontrakoakaz eta Ubideko Herri Kandidaturearen abstentzinoagaz.

Aurrekontuko partida nagusietako bat gizarte babeserako eta sustapenerako jarduketara guztietara bideratuko da. Horreen artean azpimarragarriak dira, besteak beste, %23,2 igongo diran gizarte larrialdietarako laguntzak, 292.000 euro, eta etxez etxeko laguntza zerbitzua, 369.000 euro, hau da, 2023an baino %27,2 gehiago.

Bazterketa arriskuan dagozan personentzako laguntza-zerbitzurako 40.900 euro dagoz, eta 40.000 euro izango ditu kabinete psikologikoak, igaz baino %33,3 gehiago. Gazteria programeak 104.000 euroko ekarpenari eutsiko deutso, eta andren eta gizonen arteko bardintasuna bultzatzeko programeak %5,1 egingo dau gora, 61.000 eurora heldu arte. Aurrekontuak eskualdeko enplegua bultzatzeko partideari be eutsiko deutso, 100.000 eurogaz, hainbat programatarako.

Barritasun garrantzitsuen artean, Herri Txiki Aukera Handi (Arratiako mobikortasun jasangarriko proiektua) programara zuzendutako 450.000 euroko partidea dago. Horrez gainera, 10.000 euroko partidea dago artxiboa digitalizetako; datuak babesteko programeari jagokon beste partida bat be badago, 9.700 eurokoa eta beste 8.000 euro Laguntza Teknikoen Bateriarako, hau da, persona gaixoentzako edo errehabilitazinoan dagozanen maileguan hartzeako materialetarako.

Aurrekontuaren partidarik handiena "uri hondakin solidoen bilketa eta tratamendua" atalerako izango da, 1.266.966 eurokoa, eta, jasangarritasunerako 103.620

euroko partidea erreserbau da. Argiteria publikoaren mantentze lanak apur bat gora egingo dau, 254.267 eurora heldu arte.

Arratiako Egoitza

Arratiako Udalen Mankomunitatearen aurrekontuak 2.423.186,12 euro bideratuko ditu Dimako adinekoentzako egoitzara, AUMeko erakunde autonomora, 2023an baino %4,09 gehiago. Zerbitzu horren partida nagusien artean, egoiliarrentzako laguntzea dago 1.097.110,32 eurogaz; animazino psikosozialerako 48.000 euro dagoz, zerbitzu medikorako, 45.000 euro, Eguneko Zentrorako garraio-zerbitzurako, 44.582 euro eta fisioterapiarako, 36.725 euro.

Eguneko zentroak ipinteko diru partidarik ez

EH Bilduk adinekoentzako eguneko zentroak ipinteko AUMeko 2024ko aurrekontuetan diru partidarik ez egotea salatu eban prensa ohar batez, aurrekontuok onartu ziranean. Bigarren urtez jarraian, AUMko aurrekontuetan menpekotasunik bako adinekoentzat eguneko zentroa egiteko partidarik ez dagoala salatu dabe. "2018. urtean Areatzan zentro pilotua ipini eta modu mailakatu baten Arratiako gainontzeko herrietara eroatea hitzartu zan. Igaz arte 20.000 euroko partidea egoan aurrekontuetan horretarako, baina atzen urte bietan diru kontuetatik ez ezik, mahai gainetik be kendu dabe gaia. Horregaitik, EH Bildutik, arratiarren bizitzak hobetzen jarraitzeko proiektuen alde lanean jarraituko dogu".



IGORRE

Igorreko Udalak aho batez onartu ebazan energia barriztagarrien inguruko laguntzak eta Bardintasun Plana

Energia barriztagarriak aprobetxetako instalazinoetarako eraikuntza, instalazino eta obren gaineko zergaren %95eko hobaria eta II. Bardintasun Plana onartu ziran EAJ-PNV eta EH Bilduren botoakaz.

Erredakzioa

Instalazino eta obren gaineko zergaren %95eko hobaria Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) energia barriztagarriak aprobetxetako sistemen instalazinoei, panel fotovoltaikoak, esate baterako, jagokiezan gastuak ordaintzeko emoten dituan laguntzei gehitu behar jakie. "Jasangarritasun energetikoranzko transizino gure helburuetako bat da; horregaitik, panel fotovoltaikoak lango baliabideen instalazino sustatu gura dogu, uri-argiterian

eta eraikin publikoetan konsumoa murrizteko esku-hartzeak egiteaz gainera" azaldu eban Olatz Urkiza



Igorreko alkateak.

Andra eta gizonen arteko bardintasuna sustatzeko ekintzak

II. Bardintasun Planak, beste gauza batzuen artean, bardintasuna sustatzeko 77 ekintza proposatzen ditu. Esku-hartze horreek 4 atalotan antolatuko dira: Udal gobernu (25 ekintza), Emakumearen ahalduntzea (15 ekintza), Ekonomiaren eta gizartearen antolaketa erantzukidea (18 ekintza) eta Indarkeria matxistari aurre egiteko (9 ekintza).

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Turismoan euskerea sustatzeko Errotik proiektua aurkeztu dabe

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek, Errotik izeneko euskerea sustatzeko proiektua ipini dau martxan.



Erredakzioa

Arratiako eta Hego Nerbioiko landa eremuan eta turismoan euskerearen erabilera sustatzeko helburua dauka, eta dobako zerbitzua emongo deutse lehen sektoreko ekoizleei zein turismoko establezimientuei. Bizkaiko Foru Aldundiak finantzietan dau. Proiektua urrietan ipini zan martxan, eta daborduko 11 ekoizle eta establezimienturi emoten deutse zerbitzua. Proiektua zezeilaren 7an aurkeztu zan Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan. Bertan egon ziran, Isaak Amezagaga Bizkaiko Foru Aldundiko

Euskara zuzendaria, Olatz Urkiza Gorbeialde alkarteko presidentea, Bingen Larizgoitia Gorbeialdeko kudeatzailea, Arkaitz Estiballes Zeanuriko zinegotzia, turismo teknikaria, hizkuntza aholkulariak eta proiektuan parte hartzean dabizen establezimientuetako ordezkariak.

Arratia Nerbioi eremu euskalduna izanda, turismoaren eremuko establezimientu askotan eta lehen sektoreko ekoizle askok ez dabela sarritan euskerearen presentzia bermatzen ikusita, Gorbeialde alkartek ebatzi eban hizkuntza kudeaketearen eremuan eragiten hastea.

EusGaratik sortua

Proiektuaren jatorria, 2022an abiatutako pilotaje batetik dator. Arratiako arlo sozioekonomikoan euskerea sustatzen dauan eusGara zerbitzua, Gorbeialde alkartegaz alkarlanean, hotel bigaz hasi zan lan egiten: Zuhaitz Etxeak eta Etxegana spa & hotelakaz hain zuzen be. Hainbat lan egin ziran orduan: bezeroei emoten jakiezan eskuorriak itzuli, menuak euskeratu, hizkuntza paisaian eragin, sare sozialetan euskerearen presentzia bermatu... Lanketaren balorazino positiboa egin eben alde guztiek eta proiektu propioa sortzeako aukerea egoala ikusi eban Gorbeialdek.

Errotik-ek honako zerbitzu honek eskaintzen deutsez bat egin daben establezimientuei: itzulpenak, hizkuntza aholkularitza, trebakuntza saioak, hizkuntza ohituretan eragiteko laguntasuna, dirulaguntzen kudeaketa eta abar.

Hikei, Areatzako Bainuetxea hotela, Ubideko Herriko Taberna, Etxegorri ostatua, Artiñano etxea, Zeberioko Taberna Zaharra, Ermitabarri apartamentuak, Zuhaitz Etxeak, Etxegana hotel & spa, Urduña museoa eta Askibil gaztandegia dira Errotik proiektuan momentuz dagozan establezimientuak.

ANE ELORDI

"Jente askok Korrika jai moduan ikusten dau baina azpitik dagoan aldarrikapen eta mezu hori oso garrantzitsua da"

Igorreko Kubulu Euskaltegiko Ane Elordi da 23. Korrikaren koordinatzaile nagusia. Zornotzarra, 2015ean hasi zan Igorreko Euskaltegian beharrea eta euskalde mailako antolaketan, furgonetan eta prensa taldean be ibili izan da aurreko edizinoetan.

Erredakzioa

Zeintzuk dira koordinatzaile nagusiaren eginbeharrak?

Asko dira koordinatzaile nagusiaren eginbeharrak. Korrika urtea eta Korrika ez urtea bereizten dogu guk, eta gitxi batzuk, Korrika ez urtean be lanean ibiltzen gara. Arduradun nagusiaren betebeharrak dira: ibilbidea diseinetzea herrialdeetako arduradunakaz batera; eragileen errondak, hau da, instituzinoakaz biltzea eta eragileen babesa lortzea; kanpora begira mezua zabaltzeko ardura, eta Korrikaren ildo nagusiak zeintzuk diran azaltzea hedabideen aurrean. Barrura begira, nazino mailako barne koordinazioaren ardura dauka koordinatzaile nagusiak.

Korrika, zemendiaren 16an aurkeztu genduan nazino mailan. Ordura arte ibili ginan leloa, irudia eta holangoetan lanean, eta harrizkeroztik, mugari komunikatibo bat antolatuten da hilero: kantua, ibilbidea, erropak... Korrika sei hilebetz behintzat, jentearengan presente egoteko. Momentu honetan be horretan gabiz: ahalik eta jente gehien erakarten eta parte hartzea bultzatzen ekarpenak ahalik eta handienak izan daitezkan. Baita, Korrikaren leloa "Harro Herri" jakitera emoten be.

Martiaren 14an hasiko da lasterketea eta mundu guztia urtengo da kalera. Gero balorazio errondea etorriko da, egindako lanak ea frutua emon dauan jakiteko eta jentearen sensazioaren barri izateko.

Aurretik Korrikako furgonetan ibilitakoa zara, prentsa taldean... Korrika alde eta ikuspuntu guztietatik ezetuten dozu, ezta?

Bai, bueno guzti-guztietatik igual ez, baina Kubulun hasi nintzantetik eskualde mailako antolaketan egon naz; 21. Korrikan Euskal Herri osoa egin neban furgonetan eta 22.ean be ibilbide osoa prentsa taldean. Errealidade desbardinak ikusi dodaz ikuspuntu desbardinatetik.

Eskualde mailako antolaketan, Korrika Kulturala landuten da eta herriko jenteagaz hartu-emona osoagoa da. Askotariko lanak egiten dira, Euskaltegiaren egunerokotasunagaz buztartu behar diranak.



Furgonetan joateak ikuspuntu askoz zabalagoa emoten dau. Normalean ohituta gagoz bakotxa bere herrian edo bere eremuan parte hartzean; eta Bizkaitik Ipar Euskal Herrira joatea, edo Nafarroara edo Arabara... abentura bat da. Gainera txandak 13 ordukoak izaten dira eta asko biziteko aukerea emoten dabe.

Prensa taldea, beste komunikabideakaz batera osotuten dan taldea da, 10 lagunekoa. Horrek be aberasteko aukera asko emoten dauz, jenteak zer egiten dauan, ze lanketa, kontaktuak... jakiteko aukerea emoten dau. Interesgarria da.

Antolakuntzan egon aurretik, maila personalean be bizi izango zenduan Korrikarik. Zein izan zan zure lehenengo Korrika?

Ez dakit zehatz zenbagarrena zan, baina herrian izan zan. Zornotzakoa izanda, Zornotzatik beti pasau izan da-ta. Gogoan daukat gaua zala eta jantza taldeko ki-deakaz zain egon nintzala luze.

Edizino bakotxak bere ezau-

garriak ditu. 23. edizinoak zeintzuk dira?

Edizino guztietan saiatzen gara momentu horretako irakurketa bat egiten. Kasu honetan Harro Herri leoagaz azpimarratzen dogu momentua dala euskeraz harro bizi gura dogula aldarrikatze. Oldarraldi batetik gatoz, bueno aspaldiko oldarraldia da, baina entzuten da sarri eta igazko zemendiaren 4an kaleak bete egin ziran Bilbon, Kontseiluak deituta. Badago gogo bat. Donostiako amaiera be ze jentetsua izan zan. Hau da, badago gogo bat euskerearen alde aldarrikapenean ibilteko eta hori ekarri gura izan dogu edizino honetan lehenengo lerrora.

22.enean Hitzekin izan zan leloa eta hor erabilera hartu zan erronkatzat hori bultzatzeko. Eta edizino bakotxean egin izan dira ekintza soziopolitikoak. Esate baterako, eragileak bateratzeko kilometro berezia egon zan Bastidan, edo oin dala edizino batzuk Donibane Garazin egin zan doakotasuna aldarrikatze ekintza. Jente askok Korrika jai moduan ikusten dau bai-

na azpitik dagoan aldarrikapen eta mezu hori be oso garrantzitsua da.

Aurten ez da aurrekusi kilometro berezirik, beste formatu batzuk hobetsi dira. Babesa adibidez, argazki bidez, eta bideo bat montatuko asmotan gagoz. Eta omendua gure ustez bai dala berezia. Sarritan gazteei esaten jakie, "ez dozeu egiten euskeraz" eta antzekoak. Presino hori, zama hori daukie, baina gazteak egingo dau helduak egiten dauana. Euskerearen erabilera gizartearen arazoa da eta horren konziente izan behar gara.

Omenduagaz ekarri gura izan dogu fokupera gazte horrek egiten daben burruka azterketak euskeraz egitearen alde burrukan egiten dabenean. Eta hori eurak ikasle izanda! Eta Bordeletik Baionara 14 urteko mutiko batek bizikleta marxa bat antolatutea... Uste dogu horrek gauzok erakutsi egin behar dirala. Horregaitik sortu be egin da dokumental bat *Oihal etxea*, Lander Garrok egin dauana. Gure asmoa da Euskal Herri osoan ezetuten emotea. Gainera Ipar Euskal Herrian emoten dan gatazka bat da eta uste dogu Hegoaldean jente askok horren barri be ez daukala.

Korrikaren aurkezpenik egingo da Arratian?

Bai, hilaren 29an, 19:30ean Igorreko jubiladuen lokalean egingo da. Eta Korrika Kulturalari jagokonean, esan behar da atzenengo edizino bietan beka atera dogula, 23.000 euroko sariagaz, sorkuntza beka bat. Aurrekoa *Badon* ikuskizunak irabazi eban eta hori da aurtengo Korrika Kulturalan herriz herri ibiliko dan ikuskizunik handiena. Horrez gainera, beste ikuskizun batzuk be egongo dira. Igorren *Bizkarsoren* emonaldia egingo da, eta herri bakotxean, bertan egoki ikusi dana antolatu da.

Oin hurrengo edizino Korrika Kulturalako ikuskizun nagusia izango dana aukeratzeko gabiz beste beka batez.

Atzerako kontua hasita dago, ezta? Korrika hasteko gogoz eta ilusinoz zagoz?

Bai. Emoten dau atzerako kontua zemendiaren 16an hasi genduala, leloa-eta argitaratuta. Egia da gehien espero dana ibilbidea izaten dala, eta ordutik aurrera... ia mar-

tiaren 14a noz helduko zain gagoz. Baina bitartean badaukaguz aurkezpen sozialak, eta egunerokotasunean egiten diran lan horreek be eskatzen dabe denporea. Ilusino ba. Eta norberaren herritik eta inguruetatik pasetan danean, beti da berezia. Aurten gainera oso ondo jausten da hemen: barikuz eta, polito!

Martiaren 22an pasauko da hemendik, abiada bizian.

Kilometroak 6 minutu eta erdira kalkuletan doguz. Uriburuetan eta aldapan gora apur bat gehiago 7 eta erdira. Baina Korrikak zeozer badauka da emozionala dala eta orduan lekukoa eskuan hartzeagaz batera jentea hasten da galapan... furgonetea jateko moduan. Horren aurrean guk gitxi daukagu egiteko.

Zer espero dozeu jentearen partaidetzeaz?

Jentearen partaidetzeagaz momentuz pozik gagoz. Oin arte, kilometroek oso harrera ona euki dabe. Kilometroak eskuratuteko epea ipini genduan zezeilaren 1etik aurrera, eta arinago be jaso izan doguz eskaerak.

Egia da atzenengo urteetan Korrikak gorantza egin dauala izugarri, eta orokorrean jente-artek oso harrera ona egiten deusala. Hori bai igartzen dogu. Eta espero dogu 22.a bestekoa izatea aurtengoa. Donostiako amaieran kolapsau egin zan uria aurrekoan, eta Baionan be irudi hori emotea oso garrantzitsua da guretzat. Hori dala-ta, animetan dogu jentea bai hasiera egunean, bai bitartean parte hartzera eta amaieran Baionara hurreratzera. Egitarau oso potentia egongo da.

Pozik egongo dira omendua Azterketak euskeraz dalako eta Korrikaren amaiera Baionan.

Bai. Bultzadea emoteko modu bat da. Askotan pentsau dogu Baionan amaitutean eta omendua bertakoak izatean ez ete garan lar iparralderatu. Baina holan suertau da. Guk amaierak errenkadan egiten doguz uriburuetan eta Baionari egokitzen jakon. Eta gainera uste genduan momentu ona zala gazte talde hau omentzeko, bultzada bat emoteko eta euren egoerea jakitero emoteko.

SAN BALENDIN

San Balendin jaia Eleizondon (Zeanuri), artea neurtuz eta Nestor Basterretxea gogoratuz, zezeilaren 18an

65 urte beteko ditu artea neurtzearen tradizioak.



Jon Urutxurto

Aurten be San Balendin jaia ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenaz ezetuten dan ermitearen inguruan, San Balendin egunaren hurrengo domekan, zezeilaren 18an. 2024koa artea neurtzen daben 65. urtea izango da. Gainera, aurten Nestor Basterretxea artista bermeotarra gogoratuko da. Basterretxeak 2024an ehun urte beteko leukezala atxakiagaz, 2025era arte hainbat jarduera antolatu ditue 20 erakundek baino gehiagok, bere ondarreraren zabaltasuna eta sakontasuna gogoratzeko. Eleizondoztarrak be garautxo ipiniko dabe mendeurren horretan, Basterretxeak diseinutako kurutzea dagoalako parroikia eta ermitearen artean.

Jaia ospatzeko egitarau apala, baina, aldi berean, bitxia antolatu dabe eleizondotarrak: 11:30ean mezea izango da Andra Mari parroikian; meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan. Santua eleizatik ateraterakoan, herriko umeek agurra jantzatuko deusie eta ostean ermitara bidea egingo dau prozesinoak, datorren urtera arte bertan ixteko. Jarraian ermitearen aurreko artearen neurteteari ekingo deusie eta neurtetearen aktea sinatu eta gero, oin arteko maiordomoak,

Itsasne Atutxak, datorren urtekoari, Igor Intxaurragari, agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasauko deusaz. Ostean, Basterretxearen eskulturearen aitama egingo da eta ondoren barauskarria bananduko da: urdaia, pamitxea eta ardaoa, Eleizondora hurreratzen diranen artean. Ekintza horreek herriko txistularien eta Arkaitz Estiballes bertsolariaren kantuen artean egingo dira.

Egitarau honetan aitagarria da oin dala hirurogeta bost urte eleizondotarrak hasi eben eta oin dala hamabost urte, aldi baten bertan behera itxita egon ostean, berreskuratu eta ofizialtasuna emon gura izan eutsien ekintzea: Piedadeko artearen neurtetea.

Artearen neurtetea

Pedro Lejarza eleizondotarraren arabera, "Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkoa da; 1958. urtean landatu eben gure aurrekoak. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan, gonbit egunean, batzuetan bazkalostean, eta beste batzuetan afalostean, jai giroan, bolanderak botaz, bertsoak abestuz... artea neurtu egiten eben. Neurtzeaz Gorordo baserriko Zeferino Lejarreta (+) arduratzen zan. Eta neurtu ostean, jaia amaitutzat

emoten zan. Zeferinoren koadernoetan lehen urteetako neurteten zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurtetea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: "La medida de la encina de la Piedad, en los años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18".

Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta atzen neurtetea, Kandido Intxaurragak (+) egin eban 1999an; papertxo baten zera idatzi eban: "Piedadeko artea. 99-2-14. a 1,50 circunf.: 1,50".

Aurrekoek hasitako ohiturea ez dabe galtzean itxi gura eleizondotarrak, eta Pedro Lejarzak dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. 2008an, Piedadeko artearen neurtetea hasi zanetik 50 urte beteten ziranez, ofizialtasuna emon gura izan geuntsan ohitura bitxi honeri, aurrerantzean be jarraipena izan daian. Gainera, zugatzari neurria hartzeaz Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta (+) arduratu zan 2015era arte. Gregorio 2015ean hil egin zan eta 2016an bere lekukoa Igor Intxaurraga eleizondotarrak hartu eban. Ordutik bera da neurtzailea".

Igaz arteari hartutako neurria honako hau izan zan: 192 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran.

Nestor Basterretxearen kurutzea

Kurutzea, Gorbeiko kurutzearen

Nestor Basterretxearen kurutzea, Gorbeiko kurutzearen

mendeurrena ospatuteko Zeanuriko Udalak Nestor Basterretxeari egindako enkargu bat da



Igor Intxaurraga eta Gregorio Lejarreta.

mendeurrena ospatuteko Zeanuriko Udalak Nestor Basterretxeari egindako enkargu bat da. Andra Mari parroikia eta Piedadea ermitearen artean dago kokatuta, Gorbeiko Kurutzera begira. Basterretxeak inaugurazino egunean adierazo ebanez, "eskultureak lekuaren sakratutasuna indartzen dau". Korten altzairuzkoa da; sei metroko altuerareta eta bi mila eta lauhun kilo inguruko pisua daukaz, eta barrutik hutsa da.

Eskultura hau 2003ko abenduaren 21ean inaugurau eben, Nestor Basterretxearen presentziagaz. "Nire zeregina kurutze moderno bat egitea izan da, baina Gorbeiko Kurutzearen oinarrituta. Estetikoki, argi eta garbi industrialia dan egitura lineal konpleju bategaz diseinatu dago, eta horrek originaltasun nabarmena emoten deutso: estetiko eta estatiko, formea eta funtzioa, unidade moduan ebatziak".



Nestor Basterretxea, Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak eta Ander Manterola, kurutzearen inaugurazinoan (2003-XII-21).

MENDI LASTERKETEĀ

Hilaren 25era arte zabalik dago Gorbeia Suzieneko 32 kilometroko lasterketarako izen-emotea

Urri lehenengoaren 28an jokatuko dira Gorbeia Suzien 32 eta 21 kilometroko lasterketak.

Erredakzioa

Skyrunners World Series-eko 32 kilometroko lasterketarako izen-emotea zabalik dago hilaren 25era arte, Gorbeia Suzien webgunean. Gehienez, 600 lasterkarik hartu daiek parte. 21 kilometroko lasterketarako martiaren 4an zabalduko da izen-emotea.

Lasterketa nagusiak 32 kilometro eta 2.400 metroko desnibel positiboa dauka. Ibilbidea, Zeanuriko plazan hasi eta amaitu egingo da. Plazatik urten eta San Justo ermitatik sartuko da Gorbeia Parke Naturalean. Aldapa gogorra igon eta Ziburura heldu eta Leandako bidea hartuko dabe lasterkariak. Bide harritsu teknikitik

bajatu eta Arraba inguratuz, Zastegiko txabolara helduko dira, Gorbeia tontorrera igoteko. Hortik Azerora jeitsi eta atzen igoerari

ekingo deusie partaideek, Aldamina heldu arte. Eta handik, Zeanurira bueltauko dira jatsiera luzea eginaz.



Argazkia: Julen Axpe.

PELOTEĀ

Zezeilaren 23an jokatu da II. Mugarri Desafioa, anaia arratiarren arteko txapelketea

Urtailaren 5a zan II. Mugarri Desafiorako lehen datea baina atzen momentuan atzeratu zan.

Oin, zezeilaren 23rako, barikua, dago antolatuta

Arratiako anaia pelotarien arteko txapelketea.

Dimako plazako frontoi txikian jokatu dira partiduak, 18:00etatik aurrera.

Erredakzioa

2020koa, lehen desafioa, Dima eta Zeanuriren artekoa izan

zan eta oin, anaia artekoa. Gainera, lehen datan sei anaia bikote egozan baina oin, zortzi izango dira atzenean. Dimatik



Rekaldetarrak, Asuatarrak eta Etxebarriarrak egongo dira; Zeanuritik Beitiarrak, Intxaurragatarrak eta Erkiagatarrak; Igorretik Atutxatarrak eta Lemoatik, Erauzkintarrak.

III. Mugarri Desafioa, martian

Anaien arteko desafioa amaitu eta astebetera, III. Mugarri Desafioa hasiko da. Hau, zezeilaren 1ean aurkeztu eben Indusiko txokoa eta antolakuntza mailatik, beste salto bat izango da Mugarri Desafioarentzako. Izan be, Bizkaiko eskualdeen arteko txapelketea izango da. Lehenengo urtea izango da eta beraz, lau eskualde baino ez ditue deitu: Arratia, Durangaldea, Ezkerraldea eta Lea Artibai.

Desafio honek hiru jardunaldi izango ditu, finalurreko bi eta finala. Zozketaz ebatzi ziran lehen partiduetako aurkariak eta beraz, Igorren martiaren 2an jokatu dan finalurrekoan Durangaldea eta Ezkerraldea egongo dira aurrez aurre. Martiaren 9an oster, Arratia eta Lea Artibairen arteko norgehiagokoa Ubiden jokatu da. Finala barriz, martiaren 17an izango da Otxandion.

FUTBOLA

Andrazkoen Arratia A taldeak baino ez dau irabazi atzen jardunaldian

Andrazkoen Arratia A taldea izan zan jokatuako atzen jardunaldian irabazi eban talde bakarra.

Gizonezkoen Arratia Ak etxean galdu eban, gizonezkoen Arratia Bk eta andrazkoen Arratia Bk etxetik kanpo galdu eben eta Lemoako Harrobik bardindu egin eban etxean.



Andrazkoen Arratia B eta Bizkerre C taldeen arteko partidua.

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 10ean jokatu eban San Ignacio taldearen kontra Urbietan eta 4-0 irabazi eban. Aurreko partidua 3-0 galdu eban etxetik kanpo Oiartzunen kontra. Hemenetzi jardunaldiren ostean 31 puntu ditu Arratiak eta zortzigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Mutilvera taldearen kontra hilaren 17an, arrastiko 18:00etan.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 11n jokatu eban etxetik kanpo Bizkoneskak bigarren sailkatuaren kontra eta atsedendira binako bardinketeagaz heldu baziran be 6-2 galdu eban Arratia Bk. Aurreko partidua 5-2 irabazi eban etxean Bizkerre C taldearen kontra. 18 jardunaldiren ostean 33 puntu ditu Igorreko taldeak eta bosgarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau Bilbao Artizarrak taldearen kontra hilaren 17an, arrastiko 16:00etan.

Gizonezkoak

Gizonezkoen Arratia Ak hilaren 10ean jokatu eban etxean Indautxu taldearen kontra eta 0-2 galdu eban. Aurreko partidua be galdu egin eban 3-2 Zamudio tal-

dearen kontra etxetik kanpo. 20 jardunaldiren ostean 22 puntu ditu Arratia Ak eta hamahirugarren dago sailkapenean. Bajatuteko postuak 3 puntura ditu A taldeak zortzi partidu daroaz eta irabazi barik. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau hilaren 18an Erandio A taldearen kontra, goizeko 11:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 11n jokatu eban etxetik kanpo Urduliz B taldearen kontra eta 4-2 galdu eban. Aurreko partidua 1-0 irabazi eban etxean Usansoloko Umore Ona A taldearen kontra. 20 jardunaldiren ostean hamabigarren postuan dago 24 puntugaz. Datorren partidua Urbietan jokatu dau eta derbia izango da Lemoako Harrobi taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 18:30ean.

Lemoako Harrobik hilaren 10ean jokatu eban etxean Berriatuko taldearen kontra eta bana bardindu eban. Aurreko partidua be, etxetik kanpo jokatuakoa, bana bardindu eban Orozkoko Atxulaur A taldearen kontra. 20 jardunaldiren ostean seigarren postuan dago 30 puntugaz. Datorren partidua etxetik kanpo derbia jokatu dau Arratia B taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 18:30ean.


DEFENSA

Igorreko Udalak defenza personal tailerra antolatu dau

Erredakzioa

Zezeilaren 17an, 10:00etatik 12:00etara, Igorreko kiroldegiko frontoian, Eibarko Kalamua klubeko Jonathan Garcia *grappling* (oratz) mintegia emongo dau. 25 personarentzako lekua dago eta 5 euroko prezioa dauka. Izena 94 631 55 91 telefonoan emon daiteke.

Grappling-a, euskerara heltze, euste edo oratze moduan itzuli daitekena, aurkaria menperatzeko kolpe bako sistema da, aurkaria lurrera bota eta menperatzeko posizioetan ipintean oinarritzen dana. Defenza personalan, burruka-arteetan eta beste kirol batzuetan be erabiltzen dira teknika honek.



PUMP TRACKA

Igorreko Pump Track-a hilaren 24an inaugurauko da

Erredakzioa

Zezeilaren 24an, zapatua, 12:00etatik 14:00etara egingo da Igorren dagoan Pump Track-aren inaugurazioa ofiziala. Urbieta zelaiaren alboan dago igazko urri bigarrenaren eregiten amaitu eben bizikleta, patinete zein skate-agaz erabilteko zirkuitu zirkularra. Euria egiten badau beste data batera atzeratuko dabela inaugurazioa iragarri dabe Igorreko Udaletik. Gidari adituen erakustaldiak be egongo dira.

HERRI-KIROLAK

Puntako herri-kirolarien erakustaldia Igorren

Erredakzioa

Zezeilaren 23an, 19:00etan, herrikirol ekitaldia egongo da Igorreko kiroldegian. Bertan, puntako herrikirolariak erakustaldia egingo dabe eta "sorpresatxoren bat" egon daitekela azaldu deutso BEGITURI Erik Esparta zinegotziak. Izan be, leitekena da edozein publikora egokitutako herrikirol materiala egotea,

jenteak probau dagian. Sarrerak hilaren 21era arte erosi daitekez, 5 euroko prezioan, kiroldegian.

Herri-kirolariak

Udane Ostolaza, Urdax Magunazelaia eta Haritz Aranguren harrijasotzaileek eta Iker Vicente, Ioritz Gisasola, Karmele Gisasola eta Nerea Arruti azkolariek, egingo dabe erakustaldia.



Iker Vicente eta Karmele Gisasola txapelakaz.

bideON ARRATIAN

hurreratu egingo zaitu, zatoz

urigunera hurbilduko zaitu

Emon izena

Autoaren orde, garraio seguru eta jasangarria erabili zeuk gura dozunean.

65 urte baino gehiago badaukazuz eta Arratian bizi bazara, gogarako garraio jasangarrirako bideON ARRATIAN zerbitzua daukazu eskuragarri.

Zure etxeko atetik eskualdeko uriguneetara hurbilduko zaitugu, honako leku honeetan era guztietako kudeaketak egin daizuzan: udaletxea, osasun-zentroa, botikea, dendak, bankuko bulegoa edo kutxazaina.

Zerbitzua aurrez aurre eskatu ahal izango dozu bulego honetan, baita **bideON aplikazioaren** bidez edo telefono honetara deituta be:

www.bideonarratian.eus **94 471 46 24**
Lehendakari Agirre 11 - 48140 Igorre (Bizkaia)

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

IPUINA

Umeentzako ipuin musikatua ikusgai Lemoan

Erredakzioa

Pantartz konpainiak *Amilami* umeentzako ipuin musikatua eskainiko dau zezeilaren 23an, 18:30ean, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Ipuin musikatu honek, euskal kultura herrikoia eta munduko musikak (Boli Kostakoa) batzean ditu ilustrazioa, musikea, ahozko narrazioa eta usaimena erabiliz.

Juan Kruz Igerabideren *Amilami* ipuinean oinarrituta, eta tradiziozko kontakizunetatik abiatuta, laminek istorioak kontetan dira, gertaera fantastiko horreek, egungo gizartean koka-

tuz. Kontaketearen barruan, usain-bedarrak, sehaska kankak, aho-korapiloak, proiektzioak eta instrumentu desbardinakaz egindako musikak txertatzen dira.

Pantartz konpainia

Inauterietako personaia da Pantartz eta konpainiak izen hori hartu ebalda "Inauterietako kultura komikoa eta herri-barrea gure lanaren inspirazioaren etenbako iturria" diralako dinoe euren webgunean.

Pantartz konpainia 2012an sortu zan eta euskal egileen testuetan oinarritutako ikuskizunak, "dramaturgia barritzaileagaz" ekoizten ditu.



ERAKUSKETEAK

Emakumea eta euskal pilota erakusketea Igorreko Kultur Etxean egongo da



Erredakzioa

Zezeilaren 16tik martiaren 15era ikusi ahal izango da Igorren erakusketea. Gernikako Euskal Herria Museoak antolatutako erakusketa honek, pelota jokoa modu profesionalean ibili ziran lehenengo andrentzat omenaldia izan gura dau, eta zesta-punta eta erraketa modalidadeetan jardun eben andra hareek ezetutera emon. Andra hareetako asko nazinoarte mailan gailendu ziran.

JARDUERAK

Hilaren hirugarren barikuetan, umeentzako arte eszenikoak eskainiko dira Diman

Zezeilaren 16an hasita, garagarrilean eta abuztuan izan ezik, hilaren hirugarren barikuan, musikea, txotxongiloak, antzerkia, ipuin kontaketa, pailazoak, magia eta edozein arte eszenikoko ikuskizunak, tailerrak eta abar egongo dira Diman umeentzat.

Erredakzioa

Lehenengoa, txotxongilo ikuskizuna izango da, Bihar taldearen *Amets pirata*, hain zuzen be, 18:30ean, Abaroa lokalean ikusgai egongo dana.

Bariku txiki izenpean, Titi ta lolo alkartea, Dimako Liburutegia eta Dimako Udalak alkarlanean sortutako programea da. "Dimagia urte biz antolatuta eta ikusita izan dauan harrera ona, Titi ta lolo alkarlean pentsau genduan harago joatea eta hilean behin arte eszenikoen inguruan zeozer egitea proponidu geuntsan Udalar. Guk urtailetik bagilera proponidu genduan, baina Udalar idea gustau jakon eta proposatu euskun hilerio egitea udakoa kenduta abendura arte. Hasi gara liburutegiagaz lanean, eurek

egingo dabe hilebete batzuetan eta beste batzuetan guk" azaldu deutso BEGIRURI Iker Urriaga Titi ta lolo alkarreko kideak.

Arte eszenikoen topalekua

Ikuskizunen bitartez, umei arte eszenikoak aurkezteaz gainera, sortzaileek euren lanak aurkezteko topagunea be izan gura dau Bariku txikik. "Gura doguna da arte eszenikoen inguruan dagozan disziplinak aurkeztea: musikea, antzerkia, ipuin kontaketa, txotxongiloak... Dimagia be sartuko da programa honen barruan. Abenduan egingo da Dimagia, eta bagilean be zeozer berezia egin gura dogu pailazoan mundua jenteari ekarteko" dino Iker Urriaga Antxo ta Pantxa bikoteko Antxo pailazo eta Walas magoak.

Sortzaileek euren lanak aurkez-

teko topagunea be izatea gura dabe. "Askotan ez da egoten sormen lanak aurkezteko leku finko bat. Eta guk ez dogu gura izen handietan erori, gauza txikiagoak gura doguz. Beste gauza garrantzitsu bat da, aretoan eta ez kalear gura dogula egin".

Amets pirata

Amets pirata txotxongilo lanak, pirata izan gura dauan neska txiki baten gaineko istorioa dakar. "Nok dino neska bat ezin dala pirata izan? Ametsek argi dauka pirata izan gura dauala, eta, horregaitik, ez dau zalantzarik izango zorionaren giltza topatzeko abentura baten murgiltzeko, berak gura dauana lortzeko eta ume guztiek gura dabena izan eta euren ametsak lortu dagiezan" dino lanaren sinopsiak.

POESIA

Poesia hegalaria Marokon egingo dabe errezitaldia

Erredakzioa

Igorreko Poesia hegalaria taldeko Pablo Cabañasek, Idoia Carramiñanak eta Javier Arnaizek Tetuango (Maroko) Mgara Rebahi fundazioak antolatutako XI. Poesia Topaketan hartuko dabe parte, euskerazko poesiak errezitetan. Jardunaldia zezeilaren 23tik martiaren 3ra izango da.

Estadu espainiar eta Maroko mailako topaketa honetan, euskal poesiari egingo jako omenaldia eta Igorreko taldea izango da euskal

poesiaren ordezkari Tetuanen, errezitaldia eskainiz. Ez bakarrik euskerazko poesia, baita "Igorreko izena be zabalduko da" taldekoe arabera.

Nire aitaren etxea

Igorrekoek, plaka bat emongo deusie antolakuntza arduradunari. Plaka honetan, Gabriel Arestiren *Nire aitaren etxea* poemea egongo da idatzita euskeraz eta arabieraz eta Poesia hegalaria taldearen eta Igorreko Udalaren ikurrak agertuko dira.



KONTZERTUA

Borja Estankonak kontzertua eskainiko dau Arteako Herriko Bentan

Erredakzioa

Zezeilaren 24an, 13:30ean, kontzertua eskainiko dau Borja Estankona musikari arteztarrak. Kontzertu akustiko honetan, Estankonak bere ibilbideko abestien bilduma bat abestuko dau bakarrean, gitarreagaz lagunduta.

Arean taldeko gitarra-jole moduan hasi bazan be, urte asko dira bakarkako ibilbideari ekin eutsala eta hainbat disko ditu kalear bakarlari moduan: *Estankona* (2011), *Fruitua* (2012), *Ardatza* (2015) eta *Zuzenean* (2019). Atzen honek, 2019ko apirilean, lagunen aurrean Artean grabatu eta filmautako kontzertuta jasoten dau.

DOKUMENTALA

Mendebaldeko Saharako burrukan dagozan andren gaineko *Insumisas* dokumentala Igorreko Lasarte Aretoan

Zezeilaren 24an, zapatuan, 19:00etan, Laura Daudenek zuzendutako *Insumisas* dokumentala egongo da ikusgai Igorreko Lasarte Aretoan.



todo a la luz: violaciones de derechos humanos de las mujeres en el Sahara Occidental ocupado (1975-2021) ikerketatik ateratakoak dira.

Sinopsia

Andrak beti egon dira Saharako erresistentziaren lehen lerroan kolonialismoa eta Marokoko erresumaren aldetiko euren lurraldeko espoliazioaren kontrako burrukan. Errepresioa sufridu arren, handitu egin zana, 2020ko zemendian, Marokoko indarren eta Fronte Polisarioaren arteko su-etena apurtu egin zalako; okupatutako lurraldeetan bizi diran aktibistak batu ziran 1975etik oin arte andren kontrako indarkeriak dokumentetako.

Ekintzaileen esperientziakazko begirada hurrekoagaz, animazio eta estadistika datu ez oso ezagunakaz osotuta, *Insumisasek* prozesu historiko hau aurkezten dau protagonisten ahotsetik abiatuta. Horren emaitza, Marokok andren kontra eta genero eta kolonialismoaren erretratua egiten dauan filma da, euren herriaren eskubideen alde burrukan egiten daben andra ekintzaileak lehenengo lerroan ipinten dituana.

Erredakzioa

Ostean solasaldia egongo da, Itsaso Andueza Euskal Fondoko Saharako koordinazio unidateko arduraduna eta Mansoura Bachari, Saharako Andren Alkartze Nazionalen Espainiako estatu mailako ordezkariagaz.

Dokumentala EHUko Hegoa Institutua eta Euskal Fondoaren kolaborazioagaz eginda dago. Filma gaztelaniaz euskerazko azpititulakaz proiektuak da, eta sarrerea doban da.

1976ko zezeilaren 27an sortu zan RASD (Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa) eta doku-

mentala data horren inguruan ekartea ebatzi eben Arratiako aktibistek. 26 minutuko iraupena dauka eta ostean, Bachari eta Anduezagaz gaiaren inguruan sakondutako aukerea egongo da.

Dokumentalak Saharako hiru andra aktibistari eta politikari biri emoten deutse ahotsa. Ghaliya Abdalaha Djimi, Mina Baali, Saultana Sidbrahim Khayya, Omeima Mahmud Nayem eta Jadiyah El Mohtar dira bost andra horreek. Lekukotasun gehiago be jasoten dira, Brasilgo Leste estudioko artistek egindako marrazkiez lagunduta. Emoten diran datuak, Hegoa Institutuaren *Que salga*

FILMA

Bizkarsoro filma ikusi eta Josu Martinez zuzendariagaz berba egiteko aukerea Igorren

Zezeilaren 18an, 19:30ean, euskerearen kontrako jazarpenaren historia kontetan dauan *Bizkarsoro* filma egongo da ikusgai Lasarte Aretoan eta ostean, Josu Martinez zuzendariagaz solasaldia.



Erredakzioa

Bizkarsoro Donostiako Zinemaldian estreinau zan 2023an. Urtailaren 12an, UEMAK hitzarmen bat sinatu eban Gastibeltza Filmak ekoizleagaz eta Dijitalidadea banatzaileagaz UEMAKo udalerrietan eskaintzeko erraztasunak emoteko. Izan be, emonaldiaren kostuaren erdia UEMAK hartuko dau bere gain. Josu Martinez zuzendariak adierazotakoaren arabera, "euskerearen kontrako

zapalkuntzeari aurre egiteko tresnak badagozala erakusteko pelikula bat da *Bizkarsoro*". Korrika Kulturalaren barruan dago emonaldia.

Filmak, 1915etik 1982ra gertatutako bost istorio erreal jasoten ditu. Ahozko lekukotzetan eta idazleen testuetan oinarrituta, Ipar Euskal Herriko herri txiki baten bizi izandako aldaketa sozialak erakusten ditu, baita euskerearen zuzartze eta urruntzea be. Eta euskereak bizirauteko burrukea.

DUNBA

Otzarearen zozketea

Zeanuriko eskolako 6. mailako ikasleak

Gu, Zeanuriko eskolako 6. mailako ikasleak gara. Laster, gure eskola barria inagurauko dogu.

Gure eskolea apaintzeko, zozketa baten bitartez dirua lortzea da gure helburua. Etxeko produktuakaz eta itzelezko sorpresakaz otzara ederrak egin doguz.

Horretarako, 10 zenbaki dituen txartelak euro baten saldu dira. Txartelak, urtailaren 31tik aurrera, gure herriko dendan eta Kultur Etxean egon dira eskuragarri.

Otzarak prest egon ziranean, argazki batzuk atera, kartelak egin eta herriko hainbat lekutan ikusgai ipini genduzan.

Zezeilaren 9an frontoian egin zan inauterietako emonaldiaren amaieran egin zan zozketea.

Atera diran zenbakiak, dendan, eskolako Sitiesean, Kultur Etxean... ipini doguz. Aste beteko epea dago saria batzeako. Animau!



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, homiduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkerre prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzearea, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

LANA

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako umei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu 650 842 292 telefonora.

ZAINTZAILE BILA

Edadeko gizon bat zaintzeako norbaiten bila gabiz. Interesdunek deitu: 747 437 479.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Xabier Amurizaren *Hau ezin duzue galdu* errezitaldirako.

Mari Tere Bilbao (Artea)
Mikel Altuna (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Bizkarsoro* filma ikusteko.

Natalia Bilbao (Zeberio)
Nerea Iruarrizaga (Igorre)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



begitu

**BAIETZ 30 LAGUN
BARRI EGIN!**

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

ura URAREN EUSKAL AGENTZIA AGENCIA VASCA DEL AGUA

EUSKADIKO ITUN BERDEA

EUSKO JAKULARITZA GOBIERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin izar, 2012ko Munduko Emakume Chef Onena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO
INDARTSUAGORIK**

www.indartsuagoak.eus